**EXTRACTO DE LOS ACUERDOS ADOPTADOS EN EL PLENO ORDINARIO Nº 4/14 DE 30 DE JULIO DE 2014.**

**ACTA**

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA, DE LA SESION ANTERIOR, EXTRAORDINARIA Nº 3/2014, DE 13 DE JUNIO DE 2014.**

[…]

Se ratifica sin observaciones, el Acta de la Sesión Extraordinaria nº 3/2014, de 13 de junio de 2014.

**PARTE RESOLUTIVA.**

**2.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL EXPEDIENTE DE LA CUENTA GENERAL DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2013.**

**[…]**

Se aprueba por unanimidad de los asistentes, la Cuenta General del Presupuesto del ejercicio 2013.

**3.- DAR CUENTA DEL INFORME ECONOMICO – PRESUPUESTARIO SOBRE LA EJECUCIÓN DEL PRESUPUESTO DEL PRIMER TRIMESTRE 2014.**

**[…]**

Una vez cumplimentado el formulario con los datos para obtener el informe actualizado de la evaluacion de la estabilidad presupuestaria, al final del primer trimestre del ejercicio 2014, el resultado de la ejecución del Presupuesto del 2014, es que se cumple la Ley 2/2012 y la Norma Foral 5/2013, resultando un superavit –capacidad de financiación- de 294.156,95 €

Del informe sobre el cumplimiento de la Regla del gasto, también resulta que se cumple la Ley 2/2012, y la Norma Foral 5/2013, porque la diferencia, el 31 de marzo, al final del primer trimestre, entre el límite del gasto y el gasto computable es de 90.239,59 €.

Dada cuenta, el Pleno se da por enterado.

**4.- DAR CUENTA DEL INFORME ECONOMICO – PRESUPUESTARIO SOBRE LA EJECUCIÓN DEL PRESUPUESTO DEL SEGUNDO TRIMESTRE 2014.**

**[…]**

**[…]** una vez cumplimentado el formulario con los datos para obtener el informe actualizado de la evaluacion de la estabilidad presupuestaria al final del segundo trimestre del ejercicio 2014, 30 de junio, el resultado provisional, es que se cumple la Ley 2/2012 y la Norma Foral 5/2013, resultando un superávit –capacidad de financiación- de 343.813,54 €.

Sobre el cumplimiento de la Regla del gasto, se cumple la Ley 2/2012, y la Norma Foral 5/2013, la diferencia entre el límite del gasto y el gasto computable al final del trimestre, es de 223.542,86 €,

Se informa al Pleno, que se da por enterado, sin aclaraciones

**5.- REPARO DE INTERVENCION A CONTRATOS LABORALES REALIZADOS SIN CONSIGNACION PRESUPUESTARIA, SIN CONSTANCIA DE LA EXISTENCIA DEL ACTO Y ADVERTENCIA DE NULIDAD DE PLENO DERECHO POR AUSENCIA TOTAL DE PROCEDIMIENTO.**

**[…]**

Por último, por el alcalde:

Se propone iniciar un procedimiento de modificación del presupuesto de gastos e ingresos del ejercicio 2014, que incluya la modificación de la plantilla presupuestaria para recoger dos puestos de peón de servicios, de duración determinada, con su correspondiente dotación de crédito de gastos, con cargo al ingreso proveniente de la subvención otorgada, según manifiesta el alcalde de Lanbide, sin que conste el documento de concesión de subvención, ni de previa solicitud en el Ayuntamiento, existencia del documento de compromiso firme de aportación necesario para incorporar el ingreso en el presupuesto municipal.

Se propone pagar las nóminas de julio, por los días trabajados que les correspondan, a los empleados locales contratados por el alcalde, D. José Vicente Hurtado Llaguno y D. Ramón González Zatón, antes de aprobar los expedientes propuestos, en el apartado anterior, autorizando el gasto y ordenando el pago con cargo a la partida de gastos del capítulo primero, personal laboral, del presupuesto del 2014.

Sometida a votación la propuesta, se acuerda por unanimidad de los asistentes, su aprobación.

**6.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LAS ALEGACIONES MUNICIPALES AL PROCEDIMIENTO FORAL POR EL QUE SE ELABORA EL INVENTARIO DE NUCLEOS RURALES DE BIZKAIA DE ACUERDO CON EL INFORME EMITIDO POR EL ARQUITECTO ASESOR MUNICIPAL.**

En la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno nº4/14, de 16 de julio, se da cuenta del procedimiento foral, que se tramita para la elaboración del Inventario de Núcleos Rurales de Bizkaia, que en este momento se encuentra en la fase de exposición pública para alegaciones de los interesados, estando el Ayuntamiento interesado en presentarlas, por afectar a los núcleos rurales recogidos actualmente en las NN.SS. vigentes que se reducen notablemente, y del borrador del informe que ha elaborado y que se va a presentar como alegaciones municipales, por el Arquitecto Asesor Municipal, D. Julen Madariaga Goirigolzarri, cuyo contenido expone verbalmente.

D. José Jaime Villanueva, presidente de la Comisión Informativa, presenta directamente al Pleno, sin previo informe preceptivo de comisión, una propuesta de acuerdo para adoptar por el Pleno, y aprobar que el Arquitecto Municipal, incorpore esta propuesta a su informe de alegaciones, a presentar a la Diputación Foral de Bizkaia.

Sometida a votación, se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar la propuesta presentada directamente al Pleno y unirla al informe del Arquitecto como alegaciones al Inventario de núcleos rurales de Bizkaia, aprobado inicialmente por la Diputación Foral de Bizkaia.

**7.- APROBACION, SI PROCEDE, DEL INICIO DEL PROCEDIMIENTO ESTABLECIDO EN EL ART. 8 DEL REGLAMENTO DE BIENES DE LAS ENTIDADES LOCALES, PARA LA APERTURA DE UN CAMINO EN EL BARRIO DE MALABRIGO.**

[…]

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar la propuesta.

**8.- DAR CUENTA DE QUE NO PROCEDE PROPONER LA SUSPENSIÓN POTESTATIVA, CON LA APROBACION DE LOS CRITERIOS Y OBJETIVOS GENERALES, NI LA PRECEPTIVA DE SUSPENSION DEL OTORGAMIENTO DE LICENCIAS, POR EL ACUERDO DE INICIO PARA LA FORMULACIÓN DE REVISION DE PLANEAMIENTO GENERAL DE ORDENACION URBANÍSTICA PARA EL TERMINO MUNICIPAL DE SOPUERTA.**

[…]

Dada cuenta se dan por enterados.

**9.- DAR CUENTA DE LA FINALIZACION DEL PROCEDIMIENTO CONTENCIOSO - ADMINISTRATIVO 430/2011.**

En la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno nº4/14, de 16 de julio, se dió cuenta del Decreto dictado por el Juzgado de lo Contencioso- Administrativo, nº 5 de Bilbao, por el que se declara terminado el proceso de ejecución forzosa, promovido por el Abogado del Estado, en el procedimiento ordinario 430/2011, por el recurso interpuesto contra la negativa del Ayuntamiento de Sopuerta de atender el requerimiento cursado por el Delegado del Gobierno en el País Vasco donde se exige el cumplimiento de la Ley 39/1981, de 28 de octubre, reguladora del uso de la bandera.

Dada cuenta de que se declara terminado el proceso de ejecución forzosa, se dan por enterados.

**10.- DAR CUENTA DE LA SENTENCIA 329/14 DIMANANTE DEL RECURSO DE APELACION Nº 806/2012 PRESENTADO EN LA SOLICITUD DE APLAZAMIENTO FORMULADO FRENTE A LA PROVIDENCIA DE APREMIO POR LOS CONCEPTOS DE TASA DE AGUA Y MONETARIZACION DE CESION OBLIGATORIA DE LA REPARCELACION DE LA UER 7.**

En la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno nº4/14, de 16 de julio, se dió cuenta de la sentencia firme nº 329/2014, de 11 de junio, dictada en el recurso contencioso- administrativo nº 288/2011, interpuesto por LAUKIZBAR, S.L. contra el Decreto de Alcaldía del Ayuntamiento de Sopuerta de 02/05/2011, que desestima el recurso de apelación interpuesto contra la sentencia nº 171/2012, de 17 de julio, que desestimaba el recurso, imponiendo las costas causadas en esta instancia, al recurrente y con pérdida del depósito realizado en su día, para recurrir.

Dada cuenta de la sentencia desestimatoria del recurso interpuesto por Laukizbar, S.L. se dan por enterados.

**11.- DAR CUENTA DE LA SENTENCIA 86/2014, DEL JUZGADO DE LO CONTENCIOSO - ADMINISTRATIVO Nº 3 DE BILBAO, DESESTIMANDO EL RECURSO INTERPUESTO CONTRA ESTE AYUNTAMIENTO EN MATERIA DE RESPONSABILIDAD PATRIMONIAL.**

En la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno nº4/14, de 16 de julio, se dió cuenta de la sentencia firme, nº 86/2014, de 30 de abril, dictada en el recurso contencioso- administrativo, abreviado nº 176/2012, interpuesto por D. JOSEBA HURTADO TOTORICA, contra el Decreto de Alcaldía del Ayuntamiento de Sopuerta nº 304/12, dictado el día 27 de abril de 2012, desestimando el reconocimiento de su derecho a indemnización, en concepto de responsabilidad patrimonial como consecuencia de caída de su bicicleta por colisión con una cadena colocada de lado a lado del final de la calle cetrera del Barrio del Castaño, desestima el recurso contencioso-administrativo, declarando la conformidad a derecho de la resolución recurrida, sin pronunciamiento en cuanto a las costas.

Dada cuenta de la sentencia desestimatoria de la responsabilidad patrimonial reclamada al Ayuntamiento se dan por enterados.

**12.- DAR CUENTA DE LA EVOLUCION DE LA ACCIDENTALIDAD EN LAS CARRETERAS Y CALLES QUE DISCURREN POR EL MUNICIPIO.**

En la Comisión Informativa de Asuntos de Pleno nº4/14, de 16 de julio, se dió cuenta de informe, acompañado de gráfico, remitido por la Directora de Tráfico, del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco, de la accidentalidad en Sopuerta.

Dada cuenta del contenido del informe, de reducción del total de accidentes desde el año 2000, con un total de 32 accidentes, 13 con víctimas y 19 sin víctimas, frente a los 21 accidentes del año 2013, 8 con víctimas y 13 sin victimas.

De los fallecidos en accidente, desde al año 2000 al 2013, en los cuales ha habido, 1 en el año 2004, y 1 en 2011.

Los heridos graves por accidente han pasado de 3 en el 2000, a 1 en el 2013, los heridos leves de 17 en el 2000 a 10 en el 2013, y los ilesos de 51 a 30.

Hay un peatón fallecido, en el año 2004,.

Los peatones heridos graves, fueron en 2006, 1, en 2008, 1 y en 2009, 1.

Peatones heridos leves, en 2002, 1; en 2003, 3; en 2008, 1 y en 2009, 1.

Peatones ilesos en 2003, 3.

Se dan por enterados.

**13.- DAR CUENTA DE LOS EXPEDIENTES CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVOS PENDIENTES.**

**<u>PARTE DEDICADA A CONTROL.</u>**

**14.- DAR CUENTA DE LAS RESOLUCIONES DICTADAS DESDE EL ULTIMO PLENO.**

[…]

Dada cuenta se dan por enterados.

**FUERA DEL ORDEN DEL DIA**

**15.1.- PROPUESTA PROMOVIDA POR LOS GOBIERNOS DE LA RIOJA Y EL PAIS VASCO PARA LA INCLUSIÓN DE "EL PAISAJE CULTURAL DEL VINO Y EL VIÑEDO DE LA RIOJA Y RIOJA ALAVESA" COMO PATRIMONIO DE LA HUMANIDAD.**

[...]

Sometida a votación la propuesta se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar la candidatura y apoyar la propuesta promovida por los Gobiernos del País Vasco y La Rioja para la elección de "El Paisaje Cultural del Vino y el Viñedo de La Rioja y Rioja Alavesa" como Patrimonio de la Humanidad.

**15.2.- MODIFICACIÓN DE LAS NORMAS DE UTILIZACIÓN DE LAS PISCINAS PARA LA INCLUSIÓN DE UNA NUEVA NORMA.**

El alcalde informa al Pleno de los incidentes ocurridos en el recinto de las piscinas municipales el pasado sábado, por unos incontrolados.

La ertzantza nos aconseja aprobar unas normas de utilización de las citadas instalaciones que contemple la expulsión del recinto a los alborotadores.

El Presidente propone debatir el asunto, porque debe aplicarse inmediatamente, porque están abiertas ya las piscinas, e incluir una nueva norma de utilización de las piscinas que sería la regla número 11, y que diría así:

"11.- El no cumplimiento o incumplimiento de las (10) normas anteriores, será motivo de expulsión temporal, del que no las respeta, o definitiva, no volviendo a permitir su entrada en las dependencias e instalaciones de las piscinas."

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, declarar la urgencia del asunto, y su inclusión en el orden del día para su debate y votación.

Se acuerda por unanimidad de los asistentes, aprobar la inclusión de la norma nº 11, de expulsión de las instalaciones de las piscinas.

**15.3.- MOCION. EH BILDU RECLAMA EL CESE INMEDIATO DE LOS ATAQUES EN GAZA.**

Se presenta al Pleno para su debate y votación, una moción por el grupo municipal EH bildu, que pasa a ser leída integramente:

"A raíz de la trágica desaparición y muerte de los tres jóvenes colonos, el Gobierno de Israel puso en marcha, hace ya dos semanas, una operación de castigo colectivo contra la población palestina que ha causado ya la muerte de medio millar de personas, en su inmensa mayoría civiles.

La escalada militar ha ido *in crescendo* y el inicio de la operación de invasión terrestre de Gaza ha hecho que aumente exponencialmente el número de víctimas y, en general, ha extendido los efectos devastadores de esta nueva agresión contra el pueblo palestino.

Los ataques generalizados a Gaza, una de las zonas más pobladas del planeta, por parte de Israel constituyen una violación de los principios de proporcionalidad,

precaución y diferenciación entre combatientes y civiles, como sostiene el derecho internacional y deben ser, por ello, rotundamente rechazados.

Lejos de resolver nada lo único que consiguen esos ataques es agravar la situación e incrementar la inestabilidad de la región, además de producir un sinfín de víctimas civiles ajenas al conflicto.

Es por ello que desde EH Bildu hacemos un llamamiento urgente al cese de la escalada violenta y volvemos a reiterar la necesidad de una solución dialogada y negociada del conflicto basado en las resoluciones de Naciones Unidas. Así como al respeto íntegro de los DDHH en todos los casos.

El Gobierno de unidad nacional promovido por las diversas formaciones palestinas lejos de verse como una amenaza, tal como interpreta Israel, debe considerarse como una oportunidad y un paso en la buena dirección, dado que la voz unitaria del pueblo palestino facilita cualquier solución.

Sólo un proceso de diálogo y negociación inclusivo, que lleve al reconocimiento de un Estado Palestino viable, con las fronteras reconocidas por las Naciones Unidas, puede dar solución a este conflicto, causante de un enorme sufrimiento y de una permanente inestabilidad en la región.

Por todo ello este Ayuntamiento reclama:

- El cese inmediato de la operación "Borde protector" lanzada por Israel y un alto el fuego general que sea observado por organismos internacionales.

- La adopción de compromisos para asentar ese alto el fuego, entre ellas el levantamiento del bloqueo sobre Gaza y otras medidas que castigan a la población civil palestina.

- La implicación de las organizaciones internacionales a favor de una solución dialogada y negociada del conflicto, basada en las resoluciones de Naciones Unidas.

- Sólo un diálogo inclusivo, que aboque a la creación del Estado palestino, puede dar una solución duradera a un conflicto causante de un enorme sufrimiento humano y causa de la inestabilidad en que vive Oriente Medio."

Se acuerda por unanimidad de los asistentes aprobar la moción sobre el cese inmediato de la violencia en Gaza presentada por EH BILDU.

**15.4.- MOCIÓN DEL E.A.J.- P.N.V. ANTE LA ESCALADA DE VIOLENCIA EN GAZA E ISRAEL.**

Se presenta al Pleno para su debate y votación, una moción por el grupo municipal EAJ-PNV., que pasa a ser leída por la Secretaria, integramente:

“Ante la escalada de violencia que afecta a la región palestina de Gaza, así como al Estado de Israel, con las dolorosas secuelas de numerosas víctimas, civiles y militares, y cuyo agravamiento se está produciendo en estas últimas semanas, EAJ-PNV:

Primera.- Exige el cese inmediato de los ataques aéreos de Israel sobre la Franja de Gaza así como del lanzamiento de cohetes por parte de Hamas, en coherencia con el requerimiento expresado por el Consejo de Seguridad de las Naciones Unidas, en orden a evitar la pérdida de más vidas humanas que incrementan el caudal de sufrimiento y odio y alejan la búsqueda de una pacífica solución al histórico conflicto regional.

Segunda.- Requiere de la Comunidad Internacional, especialmente de las Naciones Unidas, de los Países de la Liga Árabe y de la Unión Europea. La adopción de las medidas y mecanismos legales necesarios para la protección humanitaria de la población civil y la elaboración de las iniciativas pertinentes a fin de que se suspendan los ataques mutuos y se paralice la eventual incursión militar terrestre sobre Gaza, pactándose una tregua permanente que vincule a las partes en conflicto.

Tercera.- Aboga, tras el cese de las hostilidades y el anuncio de alto el fuego, por el reinicio del diálogo palestino-israelí, con el adecuado soporte y apoyo internacional, en aras de la construcción de un escenario de paz y estabilidad en la región, atendida nuestra convicción de que la solución del conflicto debe resolverse de manera pacífica mediante la negociación directa entre ambas partes, excluyendo absolutamente todo tipo de intervención militar.”

Se acuerda por unanimidad de los asistentes aprobar la moción presentada por el E.A.J.-P.N.V., Ante la escalada de violencia en Gaza e Israel

**15.5.- MOCION DEL GRUPO MUNICIPAL DE EAJ-PNV. ANTE EL RIESGO DE NO ESCOLARIZACIÓN.**

Se presenta al Pleno para su debate y votación, una moción por el grupo municipal EAJ-PNV., que pasa a ser leída por la Secretaria, integramente:

“La enseñanza es un derecho universal, por ello las administraciones competentes en materia de educación han de adoptar las medidas necesarias para garantizar la enseñanza pública, han de realizar una oferta de enseñanza de calidad, racional y eficaz.

El Ayuntamiento de Sopuerta en sesión plenaria ordinaria del 26 de Enero de 2012 acordó por unanimidad de los partidos representados en el Pleno “Pedir al Gobierno Vasco, Departamento de Educación que implante en el municipio de Sopuerta el primer curso del ciclo de educación primaria”. Se acordó así, partiendo

del reconocimiento de que la competencia en educación reside en el Gobierno Vasco y tratando de que la oferta se ampliara para beneficio de los niños y niñas de nuestro pueblo.

El equipo de Gobierno del Ayuntamiento de Sopuerta otorgando prioridad a su interés partidario ha realizado una interpretación libre del texto acordado en 2012, o eso parece. La deslealtad institucional expresada por el Ayuntamiento en manos de Bildu, llamando a los medios de comunicación antes de reunirse con Gobierno Vasco para solicitar la implantación de primero de primaria han supuesto una de las razones del fracaso de la gestión de este equipo de Gobierno. Otras decisiones que han conducido al fracaso, han sido la negativa de incluir informes propios, de incluir el Informe de la Secretaria de la Corporación validando el uso del espacio para la educación primaria –aún cuando otros partidos lo han solicitado-; o la negativa a negociar con el Obispado otras condiciones de uso del inmueble. Si el equipo de Gobierno se hubiera conducido motivado por los intereses de los niños y niñas de Sopuerta y el de sus padres y madres, el resultado podría haber sido otro, aunque ya nunca lo sabremos.

Ahora, parece que el Ayuntamiento de Sopuerta promovido por el equipo de Gobierno e hipotéticamente basado en el acuerdo del 2012 pretende poner en marcha el primer curso del primer ciclo de primaria “de motu propio”, en una huida hacia delante tras el fracaso de sus gestiones. Un primero de primaria que no computará como enseñanza reglada, que no estará homologada, ni será homologable y que será equivalente a la no escolarización del menor.

No podemos permitir en esta cruzada irresponsable ninguna base unánime. No somos partidarios de poner en riesgo, con el beneplácito del Ayuntamiento, la educación de los niños y niñas que padres y madres bienintencionados lleven a esta escuela primaria ficticia. No somos partidarios de poner en riesgo, promovido por el Ayuntamiento, la percepción de protección y cuidado que estos padres y madres tienen respecto a sus hijos e hijas. En definitiva, no somos partidarios de que este Ayuntamiento, encabezado por el equipo de gobierno promueva una escuela sin garantías.

Por todo lo anterior, el grupo municipal EAJ-PNV presenta para su aprobación en pleno la siguiente MOCIÓN:

1.- El Ayuntamiento de Sopuerta reafirma su compromiso con la enseñanza pública y su compromiso con la posibilidad de realizar todo el itinerario formativo en Sopuerta.

2.- El Ayuntamiento de Sopuerta insta al equipo de gobierno a emplear las vías diálogo institucional para favorecer la implantación en Sopuerta del primer curso del primer ciclo de primaria.

3.- El Ayuntamiento de Sopuerta considerará las interpretaciones jurídicas expuestas en informes propios, y no subcontratados ad hoc, para los planteamientos relacionados con la implantación del primer curso de primaria en Sopuerta**.**

4.- El Ayuntamiento de Sopuerta respetará el ámbito competencial en materia educativa.

5.- El Ayuntamiento de Sopuerta velará por la escolarización de los menores de Sopuerta a través de sus servicios sociales."

Concluída la lectura, se inicia el debate por D. Juan Carlos Hurtado, portavoz del grupo proponente de la moción, que realiza al alcalde la pregunta de si va a escolarizar en esa aula sin autorización a los niños, advirtiéndole que hay una ley que cumplir. Manifiesta que ellos están a favor de la Escuela Pública; pero no eso, que se quiere hacer, porque hay en medio unos niños.

El alcalde le contesta que, su opinión es que ha hecho el gobierno municipal todo lo que tenia que hacer, que le parece vergonzosa la actuación de la viceconsejera de educación, en referencia a una reunión celebrada, en la consejería, afirma que el municipio carece de competencia para decidir y gestionar una inversión de 500 millones, en ese edificio, negando que haya filtrado información a la prensa.

Continúa afrmando que va a seguir apoyando a los aitas que son los que quieren eso, y mientras ellos quieran él les va a apoyar.

D. Javier Nuñez concejal del grupo independiente pregunta al alcalde, qué va a pasar con esos niños, si interviene el Fisal protector del menor y señala al alcalde como portavoz de la plataforma, porque es el que sale en la radio y en la televisión, y se ha erigido en portavoz de esos aitas.

El alcalde concluye afirmando que no va a cometer ninguna ilegalidad, que tiene respaldo legal para hacer lo que quieren los aitas, y siempre que quieran los aitas, él les va a seguir. Que lo que hace es acompañar a los aitas y mientras se lo pidan va a estar con ellos.

D. J. C. Hurtado: dice que si va a ser dentro de la legalidad, como afirma el alcalde, entonces se queda más tranquilo.

D. Javier Nuñez dice que hay otros padres, que están preocupados por lo que pueda pasar; los aitas de los demás niños, no quieren que pase lo que pasó hace dos años, y quieren que los niños entren en el colegio tranquilamente y se refiere a más de ochenta o noventa familias.

Concluído el debate se somete por el Presidente a votación la moción:

Votos a favor: 4; 2 de la A.E.I. y 2 del P.N.V.

Votos en contra: 5 de Bildu.

Ninguna abstención.

Se acuerda por la mayoría simple de votos en contra, no aprobar la moción, que el grupo municipal EAJ -PNV presenta sobre la previsible no escolarización de unos niños del municipio, por acudir a un aula no autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

D. J.J. Villanueva explica el voto en contra de su grupo porque ya han cumplido con la negociación, ya han negociado con el Gobierno Vasco, San Viator y el Obispado.

Dª Felisa Peral, quiere dejar constancia de que su grupo apoya la educación pública, de que en enero de 2012, votamos a favor de la Escuela Pública Vasca; pero siempre dentro de la legalidad.

## 16.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

**2014ko UZTAILAREN 30eko 4/14 ZENBAKIKO OHIKO BILKURAN HARTUTAKO ERABAKIEN LABURPENA.**

**AKTA**

**1.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AURREKO EZOHIKO BILKURAKO AKTA (2014ko EKAINAREN 13an EGINIKO 3/2014 ZENBAKIKOA).**

[…]

Oharrik egin gabe berretsi da 2014ko ekainaren 13ko 3/2014 zenbakiko ezohiko bilkurako akta.

**EBAZPENAK.**

**2.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2013 EKITALDIKO AURREKONTUKO KONTU OROKORRAREN ESPEDIENTEA.**

**[…]**

Bertaratuek aho batez onetsi dute 2013 ekitaldiko aurrekontuaren kontu orokorra.

**3.- 2014ko LEHEN HIRUHILEKOKO AURREKONTUA BETETZEARI BURUZKO EKONOMIA- ETA AURREKONTU TXOSTENAREN BERRI EMATEA**

**[…]**

2014 ekitaldiko lehen hiruhilekoaren amaierako aurrekontu egonkortasunaren ebaluazioari dagokion txosten eguneratua lortzeko datuekin formularioa bete ondoren, emaitza da 2014ko aurrekontuak 2/2012 Legea eta 5/2013 Foru Araua betetzen dituela eta superabita –finantzatzeko ahalmena– 294.156,95 €-koa dela.

Gastu araua betetzeari buruzko txostenaren arabera, halaber, 2/2012 Legea eta 5/2013 Foru Araua betetzen dira; izan ere, martxoaren 31n lehen hiruhilekoaren amaieran gastu mugaren eta gastu konputagarriaren arteko aldea 90.239,59 €-koa da.

Horren berri emanda, Udalbatza Osoa jakinaren gainean geratu da.

**4.- 2014ko BIGARREN HIRUHILEKOKO AURREKONTUA BETETZEARI BURUZKO EKONOMIA- ETA AURREKONTU TXOSTENAREN BERRI EMATEA.**

**[…]**

**[…]** 2014 ekitaldiko bigarren hiruhilekoaren amaierako (ekainaren 30a) aurrekontu egonkortasunaren ebaluazioaren txosten eguneratua lortzeko datuekin formularioa bete ondoren, behin-behineko emaitza da 2014ko aurrekontuak 2/2012 Legea eta 5/2013 Foru Araua betetzen dituela eta superabita –finantzatzeko ahalmena- 343.813,54 €-koa dela.

Gastu araua betetzeari buruzko txostenaren arabera, 2/2012 Legea eta 5/2013 Foru Araua betetzen dira; izan ere, hiruhilekoaren amaieran gastu mugaren eta gastu konputagarriaren arteko aldea 223.542,86 €-koa da.

Horren berri eman zaio Udalbatza Osoari, eta jakinaren gainean geratu da, argibiderik gabe.

**5.- AURREKONTU IZENDAPENIK GABE, EKINTZA GERTATU DELA JASOTA GERATU GABE EGINIKO LAN KONTRATUETAN ESKU HARTZEA ERAGOZTEA ETA PROZEDURARIK EZ DAGOELAKO ERABATEKO DEUSEZTAPENA OHARTARAZTEA.**

**[…]**

Azkenik, alkateak:

Proposatu du 2014 ekitaldiko gastuen eta diru-sarreren aurrekontua aldatzeko prozedura abiaraztea eta bertan aurrekontu-plantilaren aldaketa jasotzea, zerbitzuetako peoien iraupen jakineko bi lanpostu jasotzeko, dagokien gastuen kredituen zuzkidurarekin, emandako diru-laguntzatik eratorritako diru-sarreraren kargura, Lanbideko alkateak adierazitakoaren arabera. Hori guztia diru-laguntzaren esleipena jasotzen duen dokumenturik edo Udalak aurretik eskatu izana jasotzen duen dokumenturik egon gabe, ez eta diru-sarrera udal aurrekontuan sartzeko aurkeztu behar den konpromiso irmoa adierazten duen dokumentua ere.

Alkateak, José Vicente Hurtado Llaguno jaunak eta Ramón González Zatón jaunak, kontratatutako tokiko langileei uztaileko nominak ordaintzea proposatu du, dagozkien lanegunak direla eta, aurreko atalean proposatutako espedienteak onetsi baino lehen, eta, horretarako, gastua baimendu eta ordaintzea agindu du 2014ko aurrekontuko lehen kapituluko (langileak) gastuen partidaren kargura.

Proposamena bozkatu egin da, eta bertaratuek aho batez erabaki dute onestea.

**6.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, UDAL ARKITEKTO AHOLKULARIAK IGORRITAKO TXOSTENAREN ARABERA BIZKAIKO LANDA GUNEEN INBENTARIOA EGITEKO FORU PROZEDURARI EGINIKO UDAL ALEGAZIOAK.**

Udalbatza Osoaren Kontuak Informazio Batzordeak uztailaren 16an eginiko 4/14 bilkuran, Bizkaiko Landa Nukleoen inbentarioa egiteko izapidetzen den foru prozeduraren berri eman zen. Orain jendaurrean ikusgai jartzeko aldian dago, interesdunek alegazioak aurkez ditzaten. Udalak aurkeztu egin nahi du; izan ere, gaur egun indarrean dauden arau subsidiarioetan jasota dauden landa-nukleoei eragiten die eta izugarri ari dira gutxitzen. Horrez gain, informazio batzordeak eginiko txostenaren berri eman zen. Hori udal alegazio gisa aurkeztuko du Julen Madariaga Goirigolzarri udal arkitekto aholkulari jaunak. Ahoz azaldu du txostenaren edukia.

Informazio Batzordeko lehendakari José Jaime Villanueva jaunak ebazpen-proposamen bat aurkeztu dio zuzenean Udalbatza Osoari, batzordearen aurreko txostenik gabe, ebatzi eta onetsi dezan udal arkitektoak proposamen hau Bizkaiko Foru Aldundiari aurkeztu beharreko bere alegazioen txostenean sar dezan.

Bozkatu egin da, eta bertaratuek aho batez erabaki dute zuzenean Udalbatzari aurkeztutako proposamena onestea eta arkitektoaren txostenarekin elkartzea, hasiera batean Bizkaiko Foru Aldundiak onetsitako Bizkiako Landa Nukleoen Inbentarioari eginiko alegazio gisa.

**7.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, TOKI ERAKUNDEEN ONDASUNEN ARAUDIKO 8. ARTIKULUAN EZARRITAKO PROZEDURA ABIARAZTEA, MALABRIGO AUZOAN BIDE BAT IREKITZEKO.**

[…]

Bertaratuek aho batez onetsi dute proposamena.

**8.- JAKINARAZTEA EZ DELA BIDEZKOA BORONDATEZKO ETETEA PROPOSATZEA, IRIZPIDE ETA HELBURU OROKORRAK ONETSITA, EZ ETA LIZENTZIEN EMAKIDAREN NAHITAEZKO ETETEA ERE, SOPUERTAKO UDALERRIKO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUKO**

**PLANAK BERRIKUSTEKO FORMULAZIOA ABIARAZTEKO ERABAKIA DELA ETA.**

[…]

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

**9.- JAKINARAZTEA AMAITU EGIN DELA 430/2011 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN PROZEDURA.**

Udalbatza Osoaren Kontuak Informazio Batzordeak uztailaren 16an eginiko 4/14 bilkuran, Administrazioarekiko auzien Bilboko 5. Epaitegiak emandako dekretuaren berri eman zen. Horren bidez, amaitutzat jotzen da estatuaren abokatuak 430/2011 prozedura arruntean sustatutako nahitaez betearazteko prozesua, Sopuertako Udalak Banderaren erabilera arautzen duen urriaren 28ko 39/1981 Legea betetzeko eskakizunari (Gobernuaren Ordezkaritzak bidalitakoa) emandako ezezkoaren aurka jarritako errekurtsoa dela eta.

Jakinarazi da amaitutzat eman dela nahitaez betearazteko prozesua, eta jakinaren gainean geratu dira.

**10.- URAREN TASA ETA UER 7 BIRPARTZELATZEKO NAHITAEZKO LAGAPENAREN MONETARIZAZIOA KONTZEPTUENGATIKO PREMIAMENDU PROBIDENTZIA DELA ETA AURKEZTUTAKO ATZERATZEKO ESKAERAN EGINDAKO D806/2012 ZENBAKIKO APELAZIO ERREKURTSOTIK ERATORRITAKO 329/14 SENTENTZIAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatza Osoaren Kontuak Informazio Batzordeak uztailaren 16an eginiko 4/14 bilkuran, 288/2011 zenbakiko administrazioarekiko auzi-errekurtsoan emandako eta LAUKIZBAR, SLk Sopuertako Udalaren Alkatetza Dekretuaren aurka ekainaren 11n jarritako 329/2014 zenbakiko epai irmoaren berri eman zen. Epai horren bidez, gaitzetsi egiten da uztailaren 17ko 171/2012 zenbakiko sententziaren aurka jarritako apelazio errekurtsoa. Sententzia horrek errekurtsoa ezesten du eta instantzia honetan sortutako kostuak elegileari ezartzen dizkio, garai batean errekurtsoa jartzeko egindako gordailua galduta.

Laukizbar, SLk jarritako errekurtsoa ezesten duen sententziaren berri eman da, eta jakinaren gainean geratu dira.

**11.- UDAL HONEN AURKA ONDARE ERANTZUKIZUNARI BURUZ JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUEN ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN BILBOKO 3. EPAITEGIAREN 86/2014 SENTENTZIAREN BERRI EMATEA**

Udalbatza Osoaren Kontuak Informazio Batzordeak uztailaren 16an eginiko 4/14 bilkuran, JOSEBA HURTADO TOTORICA JAUNAK apirilaren 30ean

jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoan 176/2012 zenbakiko prozedura laburtuan emandako 86/2014 zenbakiko sententzia irmoaren berri eman zen. Sententzia Sopuertako Udalak 2012ko apirilaren 27an agindutako 304/12 zenbakiko alkatetzaren dekretuaren aurkakoa da eta ezetsi egiten du kalte-ordainak izateko eskubidea ondare-erantzukizunaren kontzeptuan Castaño auzoko Cetrera kaleko amaieran alde batetik bestera dagoen kate batekin talka egiteagatik erori izanagatik. Horrenbestez, gaitzetsi egiten du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, eta errekurtsopeko ebazpenaren eskubidearen onespena adierazten du, kostuei buruzko adierazpenik egin gabe.

Udalari eskatutako ondare-erantzukizuna ezesten duen sententziaren berri eman da, eta jakinaren gainean gelditu dira.

**12.- UDALERRITIK PASATZEN DIREN ERREPIDEETAKO ETA KALEETAKO ISTRIPU TASAREN BILAKAERAREN BERRI EMATEA.**

Udalbatza Osoaren Kontuak Informazio Batzordeak uztailaren 16an eginiko 4/14 bilkuran, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendariak Sopuertako istripu-tasari buruz bidalitako txostena eta grafikoaren berri eman zen.

Txostenaren edukian jasotzen da guztira istripuen kopurua gutxitu egin dela 2000. urtetik: guztira 32 istripu izan dira, 13 biktimekin eta 19 biktimarik gabe, eta 2013an, berriz, 21 istripu izan ziren, 8 biktimekin eta 13 biktimarik gabe.

Istripuetan hildakoei dagokienez, 2000. urtetik 2013. urtera, hildako bat egon zen 2004. urtean, eta beste bat 2011n.

Istripuetan larri zauritutakoak 3 izan ziren 2000. urtean, eta 2013. urtean, berriz, 1. arin zauritutakoak 17 izan ziren 2000. urtean, eta 2013an, berriz, 10. Zauririk gabekoak 51tik 31 izatera pasatu dira.

Oinezko bat hil zen 2004. urtean.

Larri zauritutako oinezkoak 2006an 1 izan ziren, 2008an 1 eta 2009an 1.

Arin zauritutako oinezkoak 2002an 1 izan ziren, 2003an 3 eta 2009an 1.

Zauririk gabekoak 2003an, 3.

Jakinaren gainean daude.

**13.- FALTA DIREN ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN ESPEDIENTEEN BERRI EMATEA.**

**<u>KONTROLA.</u>**

**14.- AZKEN BILKURATIK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

[…]

Horren berri emanda, jakinaren gainean geratu dira.

**EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPOKO GAIAK**

**15.1.- ERRIOXAKO ETA EAEko GOBERNUEK EGINDAKO PROPOSAMENA “ERRIOXAKO ETA ARABAKO ERRIOXAKO ARDOAREN ETA MAHASTIAREN PAISAIA KULTURALA” GIZATERIAREN ONDARE GISA SARTZEKO.**

[...]

Proposamena bozkatu ondoren, bertaratuek aho batez erabaki dute hautagaitza onestea eta EAEko eta Errioxako Gobernuek egindako proposamena babestea “Errioxako eta Arabako Errioxako ardoaren eta mahastiaren paisaia kulturala” gizateriaren ondare gisa hautatzeko.

**15.2.- IGERILEKUAK ERABILTZEKO ARAUAK ALDATZEA, ARAU BERRI BAT SARTZEKO.**

Alkateak aurreko larunbatean udal igerilekuen esparruan kontrolik gabeko batzuek sortutako ezbeharren berri eman dio Udalbatzari.

Ertzaintzak gomendatu digu aipatu instalazioetarako erabilera arau batzuk onesteko bazter nahasleak esparrutik bota ahal izateko.

Udalburuak kontua eztabaidatzea proposatu du; izan ere, berehala ezarri behar da igerilekuak irekita baitaude. Igerilekuak erabiltzeko arau berri bat sartu behar da, 11. araua izango litzateke, eta honako hau esango luke:

“11.- Aurreko (10) arauak ez betetzea edo haustea errespetatzen ez dituen hori behin-behinean kanporatzeko arrazoia izango da, edo behin betiko kanporatzeko arrazoia, eta, hori gertatuz gero, igerilekuetako instalazioetara sartzea debekatuko litzaioke."

Bertaratutakoek aho batez erabaki dute kontua larritzat jotzea eta eguneko aztergaien zerrendan sartzea hori eztabaidatzeko eta bozkatzeko.

Bertaratutakoek aho batez erabaki dute igerilekuko instalazioetatik kanporatzeko 11. araua sartzea onestea.

**15.3.- MOZIOA: EH BILDUK GAZAKO ERASOAK BEREHALA GERARAZTEKO ESKATZEN DU.**

Udalbatza Osoari aurkeztu zaio EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako mozioa, eztabaidatu eta bozkatu dadin. Osorik irakurri da:

“Hiru gazte kolonoak tragikoki desagertu eta hil zirela eta, Israelgo Gobernuak orain dela ia bi aste palestinarrak kolektiboki zigortzeko operazio bat jarri zuen abian, eta horrek ia bostehun pertsona hil ditu, gehiengoak zibilak.

Militarrak ugarituz joan dira eta Gazako lurrak inbaditzeko operazioa hasi zenetik esponentzialki igo da biktima kopurua, eta, oro har, areagotu egin ditu palestinarren aurkako eraso berri honen ondorio suntsitzaileak.

Gaza planetako lekurik jendetsuenetariko bat da, eta Israelek Gaza erasotzeak, nazioarteko zuzenbidearen arabera, urratu egiten ditu proportzionaltasunaren, neurrien eta soldaduen eta zibilen artean bereizteko printzipioak. Horrenbestez, erabat baztertu behar da.

Ez du ezer konpontzen; are gehiago, egoera okertzen dute eta eskualdearen ezegonkortasuna areagotzen dute, gatazkarekin zerikusirik ez duten makina bat biktima zibil sortzeaz gain.

Hori dela eta, EH Bilduk larrialdi dei bat egin nahi du areagotuz doan biolentzia horri amaiera emateko, eta berriro errepikatzen dugu gatazkari elkarrizketaren eta negoziazioen bidez eman behar zaiola konponbidea, Nazio Batuen ebazpenetan oinarrituta. Bai eta Giza Eskubideak oso-osorik errespetatu behar direla ere kasu guztietan.

Palestinako hainbat taldek sustatutako nazio batasuneko gobernua Israelek mehatxu gisa ikusten du, eta hori ez da hala, aukera gisa ikusi behar da, norabide onean egindako pauso baten moduan; izan ere, herri palestinarraren ahots elkartuak edozein konponbide errazten du.

Gatazka honek ikaragarrizko sufrimendua eta ezegonkortasun etengabea sortu du eskualdean, eta hori konpontzeko modu bakarra dago: Nazio Batuek onartutako mugen barnean Estatu Palestinar bideragarri bat aitortzeko bide emango duen eztabaida eta negoziazio prozesu bat hastea.

Horregatik guztiagatik, Udal honek honako hau eskatzen du:

- Israelek abiatutako “Ertz babesle” operazioa berehala amaitzea eta nazioarteko erakundeek ikuskatutako su-eten orokor bat hastea.

- Konpromisoak hartzea su-eten hori finkatzeko, besteak beste, Gazaren gaineko blokeoa eta herri zibil palestinarra zigortzen duten beste zenbait neurri altxatzea.

- Nazioarteko erakundeek gatazka elkarrizketa eta negoziazioen bidez eta Nazio Batuen ebazpenetan oinarrituta konpontzeko esku hartzea.

- Estatu palestinar bat sortzera bideratutako elkarrizketa inklusibo batek soilik konpon dezake denbora batez giza sufrimenduaren eta Erdialdeko Ekialdean dagoen ezegonkortasunaren arrazoia den gatazka.

Bertaratuek aho batez erabaki dute EH BILDUK Gazako indarkeria berehala amaitzeari buruz aurkeztutako mozioa onestea.

**15.4.- EAJ-PNVren MOZIOA GAZA ETA ISRAELGO INDARKERIAREN GORAKADAREN AURREAN.**

Udalbatza Osoari aurkeztu zaio EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako mozioa, eztabaidatu eta bozkatu dadin. Idazkariak osorik irakurri du:

“Eskualde palestinarreko Gazari zein Israelgo Estatuari eragiten dion biolentzia igo egin da; ondorio mingarriak ari da uzten, biktima ugari, zibilak eta militarrak eta azken asteetan egoera larriagoa ari da bihurtzen. Hori ikusirik, EAJ-PNVk honako hau eskatzen du:

Lehenengoa.- Berehala amaitzea Israel Gazako Zerrendaren gainean egiten ari den aireko erasoak, bai eta Hamasen suziri jaurtiketak ere, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak adierazitako eskakizunarekin bat etorriz, giza bizitza gehiago galtzea saihesteko; izan ere, sufrimendua eta gorrotoa ugaritzen ditu eta eskualdeko gatazka historikoari konponbide baketsu bat bilatzea zailtzen du.

Bigarrena.- Arabiar Ligako Herrialdeen eta Europar Batasunaren Nazioarteko komunitatearen beharra, bereziki Nazio Batuena. Beharrezkoak diren legezko neurri eta mekanismoak hartzea herritar zibilak babesteko eta ekimen egokiak sortzea bien arteko erasoak amaitze aldera eta Gazako lurretan militarrak sartzea gelditze aldera, gatazkako bi alderdien arteko su-eten bat adostuz.

Hirugarrena.- Liskarra amaitu ondoren eta su-etena iragarri ondoren, Palestina eta Israelen arteko elkarrizketa bat hastea berriro nazioartearen babesarekin, eskualdean bake eta egonkortasun egoera bat sortze aldera. Uste osoa dugu gatazka modu baketsuan konpondu behar dela bi alderdien arteko negoziazio zuzenaren bidez, esku-hartze militar oro alde batera utzita."

Bertaratuek aho batez erabaki dute EAJ-PNVk Gaza eta Israelgo biolentzia gorakada dela eta aurkeztutako mozioa onestea.

**15.5.- EAJ-PNV UDAL TALDEAREN MOZIOA EZ ESKOLATZEKO ARRISKUAREN AURREAN.**

Udalbatza Osoari aurkeztu zaio EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako mozioa, eztabaidatu eta bozkatu dadin. Idazkariak osorik irakurri du:

“Irakaskuntza eskubide unibertsal bat da, eta, horregatik, hezkuntzaren eskumena duten administrazioek beharrezko neurriak hartu behar dituzte

irakaskuntza publikoa bermatzeko. Irakaskuntza kalitatezko, arrazional eta eraginkorra eskaini behar dute.

Sopuertako Udalak 2012ko urtarrilaren 26ko ohiko osoko bilkuran, bertan ordezkatutako alderdiek aho batez erabaki zuten "Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzea Sopuertako udalerrian lehen hezkuntzako zikloko lehen maila ezartzea". Hala erabaki zen, aintzat hartuta hezkuntzaren eskumena Eusko Jaurlaritzak duela eta saiatzeko eskaintza zabaltzen gure herriko haurren onurarako.

Sopuertako Udaleko Gobernu taldeak lehentasuna eman dio alderdiaren interesari eta 2012an adostutako testuaren interpretazio askea egin du, edo hori dirudi. Bilduren eskura dagoen Udal honek ez du erakunde gisa leial jokatu; izan ere, komunikabideei deitu die Eusko Jaurlaritzarekin bildu aurretik Lehen Hezkuntzako lehen maila ezartzea eskatzeko, eta hori izan da gobernu talde honen kudeaketak porrot egitearen arrazoietako bat. Badaude porrotera eraman dituen beste arrazoi batzuk ere, besteak beste, txosten propioak gehitzeari uko egitea, Udalbatzako idazkariaren txostena (lehen hezkuntzarako espazioa erabiltzea balioesteari buruzkoa) gehitzeari uko egitea –nahiz eta beste alderdiek hori eskatu- edo apezpikutzarekin higiezina erabiltzeko beste baldintza batzuk negoziatzeari uko egitea. Gobernu taldeak Sopuertako haurren eta euren gurasoen interesen arabera jardun izan balu, emaitza desberdina izan zitekeen, baina hori ez dugu inoiz jakingo.

Orain, badirudi Sopuertako Udalak, Gobernu taldeak sustatuta eta hipotetikoki 2012ko ebazpenean oinarrituta, lehenengo Lehen Hezkuntzako lehen maila *motu propio* jarri nahi duela martxan, bere kudeaketetan izandako porrotaren ondoren aurrera ihes egiteko asmoz. Lehen Hezkuntzako lehen maila ez da irakaskuntza araututzat joko, ez da homologatuta egongo, ez da homologagarria izango ere, eta adingabea ez eskolatzearen baliokidea izango da.

Gurutzada arduragabe honetan ezin dugu onartu aho batezko oinarrik. Ez gaude intentzio oneko gurasoek fikziozko lehen hezkuntzako eskola honetara eramaten dituzten haurren hezkuntza Udalaren oniritziarekin arriskuan jartzearen alde. Ez gaude guraso hauek euren haurren babes eta zaintzari buruz duten pertzepzioa Udalak sustatuta arriskuan jartzearen alde. Azken finean, ez gaude Udal honetako gobernu taldeak bermerik gabeko eskola bat sustatzearen alde.

Beraz, EAJ-PNV udal-taldeak honako MOZIO hau aurkeztu du osoko bilkuran, onesteko:

1.- Sopuertako Udalak berretsi egiten du irakaskuntza publikoarekin duen konpromisoa prestakuntza ibilbide osoa Sopuertan egin ahal izateko aukerarekin duen konpromisoa.

2.- Sopuertako Udalak gobernu taldeari eskatzen dio elkarrizketatzeko bide instituzionalak erabiltzeko Sopuertan lehen hezkuntzako lehen zikloko lehen maila ezarri ahal izateko.

3.- Sopuertako udalak aintzat hartuko ditu txosten propioetan adierazitako interpretazio juridikoak eta ez berariaz azpikontratatuak, Sopuertan lehen hezkuntzako lehen maila ezartzeari buruzko planteamenduetarako.

4.- Sopuertako udalak hezkuntza arloko eskumenak errespetatuko ditu.

5.- Sopuertako Udalak Sopuertako adingabeak eskolatzea zainduko du bere gizarte zerbitzuen bidez."

Hori irakurri ondoren, eztabaida hasi du mozioa aurkeztu duen taldeko bozeramaile Juan Carlos Hurtado jaunak. Alkateari galdetu dio ea gela horretan haurrak baimenik gabe eskolatuko dituen; izan ere lege bat bete behar da. Adierazi du beraiek Eskola Publikoaren alde daudela baina ez egin nahi den horren alde, tartean haurrak baitaude.

Alkateak erantzun dio bere iritziz udal gobernuak egin beharreko guztia egin duela, lotsagarria iruditzen zaiola hezkuntzako sailburuordearen jarrera Sailburutzan egindako bilerari dagokionez, eta adierazi du udalak ez duela eskumenik 500 milioiko inbertsio bat erabakitzeko eta kudeatzeko eraikin horretan; beraz, ukatu egin du prentsari informazioa filtratu izana.

Jarraian adierazi du gurasoak babesten jarraituko duela, horiek baitira hori nahi dutenak, eta nahi duten heinean berak babestu egingo ditu.

Talde independenteko zinegotzi Javier Nuñez jaunak alkateari galdetu dio ea zer gertatuko den haur horiekin adingabeak babesteko fiskalak esku hartzen badu eta alkatea jo du plataformaren bozeramailetzat, bera agertu baita irratian eta telebistan eta berak izendatu baitu bere burua guraso horien bozeramaile gisa.

Alkateak amaitzeko esan du ez duela legez kanpoko ezer egingo, legezko babesa duela gurasoek nahi dutena egiteko eta haiek nahi duten heinean berak jarraitu egingo diela. Berak gurasoei lagunduko diela, eta eskatzen badiote, bera haiekin egongo dela.

J. C. Hurtado jaunak esan du legearen barruan bada, alkateak dioen bezala, lasaiago gelditzen dela.

Javier Nuñez jaunak esan du beste guraso batzuk kezkatuta daudela gerta daitekeenaren inguruan. Ez dute nahi orain dela bi urte gertatutakoa gertatzea nahi; haurrak eskolan lasai sartzea nahi dute eta laurogei edo laurogeita hamar familiaz ari da hizketan.

Eztabaida amaitu ondoren, mozioa bozkatu dute:

Aldeko botoak: 4; AEIren 2 eta EAJren 2.

Aurkako botoak: Bilduren 5.

Abstentziorik ez.

Aurkako botoen gehiengo soilak erabaki du EAJ-PNV udal-taldeak udalerriko haurrak ez eskolatzeari buruzko mozioa ez onestea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendu gabeko gela batera sartzeagatik.

J.J. Villanueva jaunak bere taldearen aurkako botoa azaldu du, jada bete baitute negoziazioa: jada negoziatu dute Eusko Jaurlaritzarekin, San Viatorrekin eta apezpikutzarekin.

Felisa Peral andreak jasota utzi nahi du bere taldeak hezkuntza publikoa babesten duela eta 2012ko urtarrilean Euskal Eskola Publikoaren alde bozkatu zutela, baina beti legearen barruan.

## 16.- ESKAERAK ETA GALDERAK.